

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 256/2023 Erabakia, maiatzaren 15ekoa. Behin betiko onestea Amurrioko udalerrirako egindako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa

Martxoaren 31ko 227/2023 Foru Aginduaren bidez, behin behineko onetsi zen Amurrioko udalerrian Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari loturik dagoen hiri lurzorua mugaketaren aldaketa, azken urteetan arau subsidiarioetan egindako aldaketa puntualak jasotzeko egina.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 11. artikuluko 4. apartatua arabera, Arabako Foru Aldundiak entzualdia eman behar zien zegozkien udalei, gehienez ere 15 eguneko epean, egoki zeritzotena jakinaraz zezaten.

2023ko apirilaren 12an, Amurrioko Udalak alegazio idazki bat aurkeztu zuen, zeinean zenbait zuzenketa proposatu baitzituen. Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak baietsi egin ditu zuzenketa horiek.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Honi erantsita doazen planoen arabera, onestea Amurrioko udalerrian Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari loturik dagoen hiri lurzorua mugaketaren aldaketa, azken urteetan arau subsidiarioetan egindako aldaketa puntualak jasotzeko egina.

Bigarrena.- Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3. artikuluko 2.b) apartatua ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoko egunkari salduenetan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 eguneko irizpatearen errekamazioak jarraituz. Agiria Amurrioko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak, 11. artikuluko 5. apartatua, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7, 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA